

2009/05/20

Igartubeiti Baserri museo 'Animaliak ' tailerrean parte hartzeko aukera egongo da larunbatean museoan

Saskigintza, abarkak, filmak, herri kirolak, baserriaren ingurunea... Orain arte tailer desberdinak ospatu dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan, eta hurrengo familiei zuzendutako 'Animaliak' izango dugu bertan. Besteetan bezala, eta aurreko larunbatean Baserrien Eguna ospatzeko egindako atxedenaldiaren ondoren, hilaren 23an izango da 'Animaliak' tailerra, eta arratsaldean zehar honetan parte hartzeko aukera egongo da Igartubeitiko interpretazio zentruan.

Museoak antolatzen dituen ekintzen artean familientzako tailer didaktikoak ditugu, eta hauetan leku guztietako gazte eta familiek parte hartu dezakete. Baserriaren munduaren inguruan kokatzen dira beti gaiak, eta jolastuz edo eskulan desberdinak eginez, gure arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko aukera zabaltzen die gazte eta helduei.

Beraz, larunbatean arratsaldeko 16:30etan hasiko da tailerra, non baserri batean egon daitezke animaliak hobeto ezagutzeko aukera izango duten bertaratutako gaztetxoek. Bertan parte hartu nahi duten guztiek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, bai Igartubeiti baserri museoan bertan; baita 943 72 29 78 telefonoan; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoko web orrian.